

Arabako Foru Aldundiak 2015-2019 Legealdirako Plan Estrategikoan aurreikusitako jardueren % 97 gauzatu du

Gasteiz, 2019ko ekainaren 25a. Foru Gobernu Kontseiluak Arabako Foru Aldundiaren 2015-2019 Legealdirako Plan Estrategikoaren itxiera txostena onetsi du gaur goizean eta ondorioztatu du programatutako jardueren % 97 gauzatu dela Zehazki, jardueren % 88 burutu dira, % 9 gauzatzen ari da eta gainerako % 3ak planifikatuta egon arren ez dira oraindik hasi.

Plan Estrategikoa gobernu jardueraren legealdi bakoitzerako adierazpen egituratu eta ordenatua da. Egitura aldez aurreko diagnosian oinarritzen da eta jarduteko lehentasunak ezartzean, eta horiek xehakatu egiten dira helburu estrategikoetan, lerro estrategikoetan eta gauzatu beharreko jardura zehatzetan.

Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauarekin bat etorriz, Foru Aldundiak 2015-2019 Legealdirako Plan Estrategikoaren jarraipenari buruzko amaierako txostena bukatu zuen maiatzean.

Arabako Ekonomiaren Leheneratzea izeneko ardatzean, honako helburu estrategiko hauek nabarmendu behar dira, erabat gauzatu baitira: industrian egindako inbertsio berriak, industria sustatzeko erakundearteko lankidetzak, Arabako turismo sektoreari emandako bultzada, eta merkataritza suspertzeko eta artisautza bultzatzeko hartutako neurriak, besteak beste.

Lehiakortasunaren motorra izan dadin logistika garatzeko ardatzari dagokionez, helburu estrategiko hauen % 100 gauzatu da: Gasteizko eta Arabako nodulu logistikoa garatzea, iberiar penintsularekiko eta kontinentearekiko errotula izan dadin; Gasteizko aireportua bultzatzea, eta Arasur-Jundiz-Foronda ardatza sustatzea.

Gizarte zerbitzuak ematean lider izateko ardatzeko helburu estrategikoen % 100 bete da: etxeko laguntza zerbitzua indartzea, adinekoentzako egoitzak hobetzea, gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzea, Arabako zerbitzu



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

soziosanitarioak indartzea, ezgaitasunen bat duten pertsonentzako enplegua sortzea, hirugarren sektoreko elkarteekin elkarlanean aritzea eta adinekoen bizi kalitate autonomo eta independentea sustatzea.

Horrez gain, Foru Administrazio eta Ogasun Aurreratua izeneko ardatzeko xedeak ere bete dira, besteak beste, zerga betebeharrak betetzen laguntzea, zerga iruzurraren aurkako borroka indartzea eta foru administrazioa modernizatzea.

Lehen Sektore Profesional, Berritzaile eta Jasangarria ardatzean, besteren artean, helburu hauek bete dira osoki: sektore horretan enplegua areagotzea eta nekazaritzarako lurak babestea.

Kultura, Euskara eta Gazteria ardatzari dagokionez, honako helburu hauek bete dira erabat: sorkuntza kultural propioa bultzatzea, Arabako museoek politikak birdefinitzea, kirola babestea, euskara sustatzea edota gazteei arreta berezia eskaintzea.

Lurralde orekan aurrera egiteko ardatzari dagokionez, honako hauek hobetzeko helburua bete da: toki erakundeak finantzatzeko programak, toki erakundeekiko lankidetzak ekonomikoak eta administrazio elektronikoa, eta landa azpiegiturak.

Horrez gain, % 100 bete dira jasangarritasunari eta natura inguruneari buruzko ardatzeko helburuak: hondakinen kudeaketa integrala eta aldaketa klimatikoa geldiaraztea.



Prentsa Oharra Nota de Prensa

Aldundiak milioi bat euro baino gehiagoko zorrak eta zehapenak dituzten zordunen zerrenda argitaratzea onartu du

Datorren ostiralean, ekainak 28, aldundiaren webgunean (www.araba.eus) argitaratuko da 2018ko abenduaren 31ra arte Arabako Foru Ogasunarekin milioi bat euro baino gehiagoko zorrak edo zehapenak zituztenen zerrenda

Gaur goizean, Gobernu Kontseiluak onetsi du Arabako Foru Aldundian milioi bat euro baino gehiagoko zorrak eta zehapenak dituzten zordunen zerrenda argitaratzea. Datorren ostiralean, ekainaren 28an, foru aldundiaren webguneak (www.araba.eus) identifikatuko ditu Arabako Foru Ogasunean 2018ko abenduaren 31ra arte pilatutako zorrak zituzten zergadunak.

Zehazki, pertsona fisikoen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia emango dira jakitera, eta, pertsona juridikoei eta entitateei dagokienez, sozietatearen izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia argitaratuko dira. Halaber, zerrendan agertuko da ordaintzeke dauden zor eta zehapen guztien zenbatekoa, baina ez dira zerrendan sartuko geroratuta, zatikatuta edo etenda daudenak, ez eta zergapekoari oraindik jakinarazi gabe daudenak ere.

Datuak Babesteko Legea betez, zordunei buruzko informazioa hiru hilabetez egongo da jendaurrean, eta epe hori amaitzen denean informazioa ez da eskuragarri egongo, ezta Interneteko bilatzaileen bitartez ere. Horretarako, edukia indexatzea eragozteko neurriak hartu dira.

Aldundiak enplegu plan bereziak bultzatuko ditu langabezia handiena duten Arabako udalerrietan

Langabetuak kontratatzeke eta gizarte edo ingurumen intereseko proiektuak egikaritzeko

Datozen hilabeteetan, Arabako Foru Aldundiak enplegu plan bereziak bultzatuko ditu langabezia handiena duten Arabako udalerrietan, langabezian dauden udalerrri horietako pertsoneri kontratuak egin eta prestakuntza emateko helburuarekin. Planak 382.100 euroz daude hornituta, eta langabeziak gogorren zigortutako eskualdeetarako estrategia zabalago baten zati dira.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du langabezia gehien duten Arabako udalerrietako laguntzen urteko deialdia, arazo hori arintzen lagunduko duten enplegu proiektuak garatzeko. Proiektu horiei esker, langabetuei kontratuak egin eta prestakuntza emango zaie, gizarte eta/edo ingurumen intereseko proiektuak egiteko, eta udazkenean jarriko dira abian.

Udalak izango dira laguntzen onuradunak (Gasteiz izan ezik), baldin 2018ko maiatzaren 31n Lanbiden erregistratuta zeukaten langabezia tasa Arabako batez bestekoa baino handiagoa bada. Datu horien arabera, eta kontuan izanik lurraldean garai hartan % 11,6koa zela batez besteko langabezia tasa, programa horretan parte hartzeko aukera izango dute Laudio, Amurrio, Agurain, Oion, Lapuebla de Labarca eta Lantziegoko udalerriek.

Udal bakoitzak gehienez ere bi plan edo ekimen aurkeztu ahal izango ditu, eta haietako bakoitza modu independentean baloratuko da, irizpide hauek oinarri: zenbateraino laguntzen den enplegarritasuna hobetzen, zenbat kontratazio aurreikusten den, proiektuak nolako kalitatea daukan, udalerrian zein langabezia indize dagoen, eta zenbateraino laguntzen den ingurumena hobetzen. Eskaerak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.



Azken deialdiaren datuak

Enplegu plan bereziei esker, azken deialdian, guztira 34 pertsonari eman zitzaien prestakuntza eta egin zitzaien kontratua Laudio, Amurrio, Agurain, Santikurutze Kanpezu, Oion, Moreda Araba, Bastida eta Lapuebla de Labarcan, askotariko gizarte eta/edo ingurumen proiektuak egikaritzeko (baso eremuak garbitu, berdeguneak lehengoratu, altzariak konpondu eta abar).

Langabezia handiena duten Arabako eskualdeetan enplegua sustatzeko estrategia zabalago baten barruan dago deialdi hori. Estrategiak barnean hartzen du enplegu anezkak abian jartzea ere, eta guztira 500.000 euroko aurrekontua du: enplegu planetarako aurrekontua 382.100 euro da, eta anezkek hartuko dute gainerako 117.900 euroko zenbatekoa.

2016. urteaz geroztik, estrategia horri esker ia 200 langabeturi eman zaie prestakuntza eta enplegua (87 pertsonari enplegu planen bitartez, eta 110 pertsonari enplegu anezken bidez).

Aldundiak 632.000 euro inbertituko ditu A-1, N-240 eta N-622 errepideetako bidezorua hobetzeko

Esku hartzeak egingo ditu oinarrizko sareko, eskualdeko eta auzoetako 15 errepidetan ere

Eribe, Domaikia, Untza, Soxoguti eta Soxoko herriguneetarako sarbidea hobetuko da

Arabako Foru Aldundiak 632.000 euroko inbertsioa egingo du datozen hiletan Arabako 18 errepidetan bidezorua hobetzeko. Horien artean garrantzitsuenak hauek dira: lurralde historikoa zeharkatzen duen A-1 autobia; Gasteiz eta Bilbo lotzen dituen N-240 errepidea; eta N-622 errepidea, Altubeko autobia izenez ezagunagoa.

Foru Gobernu Kontseiluak onespena eman dio gaur Arabako lehenasunezko, oinarrizko eta eskualdeko sareetako 14 errepidetan errodadura geruza birgaitzeko eta jartzeko proiektuaren esleipenari eta 4 auzo errepidetan hartxintxarra botata tratamenduak egiteko proiektuari, hurrenez hurren 421.854 euro eta 210.540 euroko aurrekontuekin. Hala, guztira 632.394 euroko inbertsioa egitea aurreikusi da.

Esku hartze horiei esker, aipatutako errepideetako zenbait gune eta tartetan errodadura geruza konponduko da, kaltetuta baitaude —pitzadurak, zuloak eta deformazioak dituzte—, denboraren igarotzearen, neguko tenperatura hotzen, elurraren eta izotzaren ondorioz. Azken xedea errepide horien erabiltzaileen segurtasuna eta erosotasuna handitzea da.

Aldundiak, gaur esleitutako kontratuen bidez, gune zehatz batzuk hobetuko ditu A-1 errepidean, hain zuzen bide horrek Araban egiten duen 70 kilometroko tartean, Araia eta Gamarrako lotuneak barnean hartuta; N-240 errepidean, Urbinatik Ubidera artean, Goiaingo lotunea tartean dela; eta Zaitegiko lotunea N-622 errepidean.

Kasu guztietan, hondatutako errepide zatietan errodadura geruza fresatu eta birjarriko da.

Auzo bideen sarea

Halaber, esku hartzeak egingo dira beste errepide hauetan ere: A-124 eta A-623 errepideetan, Bastidatik probintziaren Errioxako Erkidegoarekiko mugara artean, narriatutako guneak egokitzeko; A-624 errepidean, Altube, Lezama eta Menagarai parean, helburu berarekin; A-2122 errepidean, Komunioi aldean; A-2602 errepidean, Artziniega aldean; A-2604 errepidean, Artziniega eta Ureta artean; eta A-2622 errepidean, Langraiz Okatik Espejora bitartean.

Herrera, Bernedo, Opakua eta Kruzetako mendateetako zorua ere konponduko da, hondatuen dauden lekuetan.

Foru Administrazioak Arabako herrigune txikietara doazen lau errepide konponduko ditu: A-4407, A-4413 eta A-4422 errepideak, hurrenez hurren Eribe, Domaikia eta Untzara doazenak (Gorbeialdeko Kuadrillaren barruan Zuiako udalerriko herriguneak dira denak); eta Aiarako Kuadrillako Soxo eta Soxogutira doan A-4624 errepidea. Horietan guztietan, zorua hobetuko da.

Esku hartze horiek behar-beharrezkoak dira, denboraren iragateak eta, batez ere, azken neguetako izozte eta elurteek bidezoruan eragindako kalteak (zulo, pitzadura eta deformazioak) konpontzeko. Saileko zerbitzu teknikoek ikuskapena egiten dute urtero, errepideen foru sareko bidezoruen egoera zein den aztertzeko, eta hortik abiatuta erabakitzen da non esku hartu behar den.

Aldundiak Arabako udalen turismo sustapena bultzatuko du 145.000 euroekin

Bisitarietzako eskaintza eta zerbitzuak hobetzea da asmoa

Arabako Foru Aldundiak aurten 145.000 euroekin finantzatuko du Arabako udalen proiektu sorta bat, turismoa sustatzeko, ekitaldiak programatzeko eta bisita gidatuak egiteko.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du dirulaguntza lerro horren ebazpena, 145.065 euroko zenbatekoarekin. Programaren helburua Arabako turismo eskaintza eta toki erakundeek hura sustatzeko dauzkaten tresnak hobetzea da eta, horrela, turismo jarduerak bultzatzea.

Diru hornidura horren bidez finantzatuko dira lurralde historikoan turismo bulegoak edo bisitariari informazioa emateko puntuak dauzkaten udalen turismo sustapeneko proiektuak eta proposamenak. Bost udal eta patronatu bat dira erakunde onuradunak

Gasteizko Udalak 70.204 euroko dirulaguntza jasoko du publizitate materiala argitaratzeko, bisita gidatuak antolatzeko, kazetari berezietuei eta bidaiari agentzietan hiriko interesguneak ezagutzera emateko, sare sozialetan sustapen kanpainak egiteko eta turismo bulegoa kudeatzeko.

Eltziegok eta Bastidak 20.000 euro jasoko dute bakoitzak. Baliabide horiek balioko dute, besteak beste, Loreen eta Baratzearen Azoka eta Ardoaren eta Musikaren astea finantzatzeko eta Eltziegoko turismoari buruzko webgunea berritzeko, eta Bastidan, aldiz, ibilbideetan seinaleak jartzeko eta bertan egiten diren ekimenen berri emateko.

Hauek izango dira Arabako Errioxako bi herri horietan Foru Aldundiaren laguntza jasoko duten beste zenbait ekintza: sustapen materiala argitaratzea, sare sozialetan kanpainak egitea eta agentzientzako bidaiak antolatzea.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

Guardiako Udalak aurkeztutako proposamenek 10.362 euroko laguntza jasoko dute. Laguntza horiek sustapen materiala sortzeko, Erdi Aroko hiribildua ikusteko bisita gidatuak antolatzeko eta argazki artxibo bat sortzeko erabiliko dira.

Gaubeako Turismo Patronatua eta Amurrioko Udala dira toki erakunde onuradunen zerrenda ixten dutenak, eta 14.391 eta 10.311 euro jasoko dituzte hurrenez hurren. Gaubeak webgunea eguneratzeko erabiliko du dirua eta sustapen materiala argitaratzeko; Amurriok, aldiz, gastronomiari buruzko kanpaina bat egingo du eta bisita gidatuak antolatuko ditu Elexazar aztarnategi erromatarrean.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

Aldundiak Arabako ibai ibilguak egokitzeko eta haietan ingurumena lehengoratzeko obrak esleitu ditu

131.285 euro inbertituko ditu lan horietan, zeinen helburua baita ibilguen edukiera hidraulikoari eustea

Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak Euroservicios y Obras Forestales EUROFOR enpresari esleitu dizkio Arabako ibai ibilguak egokitu eta haietan ingurumena lehengoratzeko obrak.

Lan horiek 131.285 euroko aurrekontua dute, eta helburua ibilguen edukiera hidraulikoa hobetzea izango da. Horretarako, askotariko lanak egingo dira, hala nola zubi begiak garbitu, ibilguan oztopoak kendu eta ibai ertzetan ingurumena lehengoratu.